



GOBERNU BATZARRA

2021.05.18

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Xabier Balerdi Tolosa

Begoña Tolosa Mendia

Nerea Letamendia Beloso

Patxi Amantegi Zubiria

Jose M^a Villanueva Telleria

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hemezortzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

1. Akta hau onartzea: 2021eko maiatzaren 11ko ohiko bilkurakoa.

2. Dirulaguntzak izapidetzeko agiri normalizatuak onartzea, eta ZERBIKAT eta izapideen eskuliburuan dagoen informazioa eguneratzea.

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

3. Hasierako onarpena ematea 24. lurre eremuko "24.1 lurramendi pasealekua" azpierrezemuko Urbanizatzeko Jarduketa Programari (2021eko apirilaren 15ean aurkeztutako dokumentuari).

4. Dekretu honen berri ematea:

- 2021/ 792 Dekretua: 2021/12 faktura zerrenda.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO MAIATZAREN 11KO OHIKO BILKURAKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko maiatzaren 11n egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



2. DIRULAGUNTZAK IZAPIDETZEKO AGIRI NORMALIZATUAK ONARTZEA, ETA ZERBIKAT ETA IZAPIDEEN ESKULIBURUAN DAGOEN INFORMAZIOA EGUNERATZEA.

T X O S T E N A

Gaia:	Dirulaguntzak izapidetzeko agiri normalizatuak onartzea
Lan esparrua:	HERRITARRAK
Espedientea:	2021ZZZZ0051

AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 29an, Tolosako Udaleko Udaltzako, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabakiak hartu zituen:

“**LEHENA:** Onartzea *Tolosako Udaleko administrazio-izapideen eskuliburua*, Tolosako udaleko web orrian -Udal Zerbitzu Telematikoak deituriko atalean-, ZERBIKAT aplikazio informatikoan argitaratua dagoena.

Izapideen eskuliburuak era antolatu eta sistematikoan jasotzen du udalaren administrazio-izapide guztien funtsezko informazioa, herritarrei zuzenean eragiten diena, hartzailerek erraz ulertzeko moduan azaldua:

- **Prozedura bakoitzaren esanahia.**
- **Nork eska dezakeen.**
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**
- **Zer bitartekoren bidez izapidetu daitekeen (presentziala, telematika...).**
- **Betebehar ekonomikoak, halakorik izanez gero.**
- **Izapidetzeko epea eta isiltasun administratiboaren ondorioa.**
- **Araudia.**
- **Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura**
- **Bete beharreko dokumentuen ereduak, halakorik izanez gero.**
- **Organo ebazlea**
- **Izapidetzeko ardura duen udal saila.**



- **Argibideak (barne erabilerarako).**

....

BIGARRENA.- Izapideen eskuliburua etengabe eguneratzea. Horretarako, udal sailletako teknikari arduradunei ahalmena ematea eta agintzea, beharrezko aldaketa eta eguneratzeak bultzatu ditzaten, Tolosako udalak hartutako ebazpenetan eta araudietan xedaturikoa jasoz.

HIRUGARRENA.- Izaera tekniko-politikoko lantalde bat eratzea, administrazio prozedura bakoitzaren fitxetako edukia berrikusteko eta eguneratua mantentzeko funtzio nagusia izango duena, bai paperezko euskarrian baita elektronikoa ere, legezko aldaketak edota antolaketako hobekuntzak dauden bakoitzean, eta edozein kasuan, urtean behin gutxienez elkartuko dena, herritarrei aurrez aurre (Udate), telefonoz eta Internet (udal web orria) komunikazio kanaletatik iristen zaien informazioa unibokoa, ofiziala eta indarrean dagoena dela bermatzeko.

Honako hauek osatuko dute lantalde hori:

- Koordinatzaile politikoa: alkatea edo hark izendatzen duen zinegotzia.
- Koordinatzaile juridikoa: kontu-hartzailea eta udal idazkaria.
- Koordinatzaile informatikoa: Izapide Espedienteen administraria
- Departamentu bakoitzeko arduraduna.

Halaber, lantaldean parte hartuko dute, eguneratu beharreko prozedura-familiaren baitan, hauen izapidetzean espezializatutako pertsona tekniko zein administratiboek, eta hauek prozedura bakoitzean izandako aldaketak ahalik eta epe motzengan komunikatu beharko dizkiete taldeko koordinatzaileei, "Eskuliburu" honetako informazioa eguneratua mantentzeko helburuarekin".

Hori kontuan izanda, HERRITARRAK lan esparrua osatzen duten sail guztietako buruek bultzatuta, Kontuhartzailetza eta Idazkaritza sailen lankidetzarekin batera, dirulaguntzen prozedura (izendunak eta lehia bidezkoak) berrikusi da, eta honako hobekuntzak proposatu dira:

1. Dirulaguntzen prozedurarako instrukzio bat sortu da, barne funtzionamendurako eta deialdietarako irizpide komunak eta bateratuak finkatuz.
2. Dirulaguntzen prozeduretan dokumentu eredu berriak sortu dira.

Hobekuntza horiek proposatu dira arrazoi ezberdinak medio, nagusiki hauengatik:



- Herritarrari dirulaguntza bat eskatzeko edo zuritzeko prozedura errazteko eta sinplifikatzeko, herritarrari orientazioa eta informazio unibokoa, ofiziala eta ulerterraza emanaz, 39/2015 Legearen 53.f. artikulua bat etorrita.
- Barne kudeaketa eraginkorragoa eta kalitatezkoa lortzeko.
- Eredu estandarizatuak eta eguneratuak lortzeko, Udalaren beraren antolaketa-aldakeketi eta azken lege xedapenei egokituak, besteak beste, honakoei:
 - 39/2015 legeari, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
 - 40/2015 legeari, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
 - 38/2003 legeari, azaroaren 7koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
 - 3/2018 legeari, abenduaren 5ekoari, Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.
 - 2016/679 (EB) Erregelamenduari, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.
 - 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duena.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Administrazio-izapideen eskuliburua eguneratzea, ZERBIKAT aplikazioan beharrezko aldaketak eginez.

BIGARRENA.- Dirulaguntzak izapidetzeko (izendunak eta lehia bidezkoak) agiri normalizatuak onartzea, eranskinean jasotako ereduaren arabera.

HIRUGARRENA.- Lehia bidezko agiri normalizatu hauek ZERBIKAT aplikazioan sartzea, eta Tolosako udaleko egoitza elektronikoa, izapideen atalean, sartzea, herritarrek zein erakundeek erabil ditzaten.

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea HERRITARRAK esparrua osatzen duten sail guztiei, Ingurumen azpisailari, eta Idazkaritza eta Kontuhartzailatza sailei.



3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA 24. IURRE EREMUKO "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA" AZPIEREMUKO URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMARI (2021EKO APIRILAREN 15EAN AURKEZTUTAKO DOKUMENTUARI).

ESPEDIENTEA: 2020H1130001

SAILKAPENA: Lurzoru hiritarra

ESPARRUA: "24. IURRE"

AZPIESPARRUA: "24.1 IURRAMENDI PASEALEKUA"

ESKATZAILEA: Construcciones Sukia Eraikuntzak SA

SARRERA DATA: 2021/04/15

ESKAERA: Urbanizatzeko Jarduketa Programari Hasierako Onespena ematea

1.- AURREKARIAK

1. 2020ko urriaren 27an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion 24.1 azpierenmuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari.
2. 2020ko azaroaren 27an, 24.1 azpierenmuko UJP-PAU dokumentua erregistratu zen Udalean, legezko izapideak egiteko eta onartzeko.
3. 2021eko otsailaren 2an, Obra eta Zerbitzuetako udal ingeniari teknikoak hasierako onespenaren aldeko txostena eman zuen, behin betiko onespenerako zenbait baldintza ezarrita.
4. 2021eko otsailaren 9an, udaleko hirigintza arduradunak txostena egin zuen, UJParen hasierako onespena desegokitzat jotzen zuena, aipatzen zituen akatsak zuzentzen ez diren bitartean.
5. 2021eko otsailaren 19an, hasierako onespenaren aurkako txosten juridikoa egin zen.
6. 2021eko otsailaren 26an, Alkatetzak UJParen hasierako onarpenera ukatzea erabaki zuen, eta funtsezko akatsak zuzentzeko errekerimendua egin.
7. 2021eko martxoaren 16an, UJPa aurkeztu zuten Udaletxean, zuzenduta.
8. 2021eko apirilaren 7an, udal ingeniari teknikoak aldeko txostena egin zuen.
9. 2021eko apirilaren 15ean, beste UJP bat sartu zen Udaletxean, aurrekoaren aurreikuspen batzuk zuzentzen dituena.
10. 2021eko apirilaren 27an, udaleko hirigintza arduradunak hasierako onespenaren aldeko txostena egin zuen, baina baldintza batzuk jarrita.
11. 2021eko apirilaren 29an Joseba Beristain Eguia udaleko aholkulari



juridikoak UJPren dokumentuari buruzko txostena idatzi zuen.

2.- AZTERKETA TEKNIKOA

Udaleko Herri Lanetako Ingeniari Teknikoak Urbanizazio Aurreproiektuaren aldeko txostena egin du 2021eko apirilaren 7an. Txostenak honako hau ondorioztatzen du urbanizazio proiektuari buruz:

“(…)

Urbanizazio-proiektuak aurreko atalean zehaztutako kontsiderazio hauek konpondu beharko ditu:

- *Azpiegituren erregistroen egoera zuzendu beharko da, betiere ibilgailuen trafikorako galtzaden kanpoaldean kokatuta.*
- *Bidegorri-espaloiaaren trazadura doitu beharko da 0+135 eta 0+170 kilometro-puntuen arteko zatian. ”*

2021eko apirilaren 27an udaleko Hirigintza Arduradunak Urbanizatze Jarduketa Programari hasierako onespina emateko aldeko txostena egin du zenbait baldintza betetzekotan:

“(…)

- *Programa jendeaurrean jarri baino lehen, 10 eguneko epean, urbanizatzeko jarduketa-programaren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan.*
- *Urbanizazio-fase bakoitza eraikinen egikaritze-faseari lotuta egongo da. Beraz, fase bakoitzeko urbanizazio-obrak amaituta eta udalak jasota egon beharko dute, fase bakoitzeko eraikinen lehen erabilerako lizentzia emateko.*
- *Homogeneizazio-koefizienteak horiek eragin dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean eguneratu beharko dira. Beraz, horiek berrikusi eta justifikatu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan. Gainera, kontuan hartu beharko da Tolosako 24.1.lurramendi pasealekua eremuko hondar-balioaren estimazio-txostena, Marta González Cavia arkitektoak 2018ko azaroan*



Udalaren enkarguz idatzia.”

3.- AZTERKETA JURIDIKOA

Tolosako udaleko Joseba Beristain Eguia aholkulari juridikoak Apirilaren 29an UJPren Dokumentuari buruz egindako txostenean honakoak jaso ditu:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena. UJP dokumentua, hirigintza egikartzeko tresna.

Bizitegitarako hiri-lurzoru finkatugabearen jarduketa integratuen garapena eta exekuzioa arautzea eta antolatzea (24.1 azpieroaren kasua da) UJParen bidez egin behar da, 2/2006 Lurzoru Legearen 152. artikularen arabera.

Tresna hori hirigintza-exekuzioko figuren esparruan sartzeak helburu hauek ditu, 2/2006 Legearen zioen azalpeneko hitzetan:

<<...batetik, administrazioak hirigintza-prozesua kontrolatu eta zuzenduko duela, eta, bestetik, hirigintza hori interes orokorra duten helburuetara bideratuta egongo dela.>>

Hizpide dugu, beraz, dokumentu bat, zeinak eginkizun duen egikartze-fasean gauzatzea hasieran onetsitako plan berezian 24.1 azpieroarako jasota dauden antolamendu xehatuaren zehaztapenak, eta Administrazioari ahalbidetzen dion egin nahi den hirigintza-erlaldaketa kontrolatzea.

Lursail horiei buruzko arau partikularrak, HAPOn, berariaz uzten du UJParen esku jarduketaren behin betiko baldintzak ezartzea.

Agindu hori eragingarri izango bada, ezinbestekoa da hirigintza-garapenaren denbora-sekuentziaren eta sekuentzia logikoaren definizio argia eta zehatza izatea, izan ere, definizio hori funtsezkoa eta bereziki garrantzitsua da exekuzio pribatuko erregimen baten alde egiten denean (kontzertazio-sistema).



Bigarrena. UJParen izapidetzea eta behar den dokumentazioa.

Izapidetzeko eskaera Construcciones Sukia Eraikuntzak SLk (sustatzaileak) egin du, eta 24.1 azpieremua urbanizatzeko UJPak kalkulaturako kostuaren % 1eko bermearekin batera dator (2/2006 Legearen 158. artikulua).

Haren izapidetzea egin daiteke hura egikaritzea legitimatzen duen hirigintza-planaren aldi berean edo geroago, eta plana onartu behar da UJParen aurretik (2/2006 Legearen 152.3 artikulua).

UJPak agiri hauek ditu (2/2006 Legearen 155. artikulua):

- Memoria justifikatiboa, egikaritze-programazio eta guzti.
- Urbanizatzeko-aurregitasmoa.
- Jarduerak izango dituen egikaritze-unitateen informazio-planoak eta mugaketa-planoak.
- Partzelen planoak, eta jarduketaren xede diren ondasunen eta eskubideen titularren zerrenda.
- Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa. Jarduketaren xede diren ondasun eta eskubide guztien balorazioa ere jasoko du.

Testua formalizatu dute agiri horiek guztiak sartuta.

Hirugarrena. Jarduketa, kontzertazio bidezkoa, eta aurreikusitako programazioa: analisisia.

Sustatzaileak exekuzio pribatuaren erregimena aukeratu du (kontzertazio-sistema), eta exekuzioaren zehaztapenak betetzeko epeak ezarri ditu, hala nola: (i) UJParen esleipen-hitzarmena; (ii) kontzertazio Batzordea eratzea; (iii) birpartzelazio-proiektua onartzea; (iv) urbanizazio-proiektua onartzea eta (V) urbanizazio-obren esleipena.



Era berean, modu malgu eta egokian definitu du urbanizazio- eta eraikuntza-garapenaren sekuentzia logikoa, denbora-egutegi baten arabera.

Laugarrena. Doako lagapeneko lursailak kokatzeko proposamena, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioan Udalak duen partaidetza gisa.

Horri buruzkoa da UJParen eduki juridiko-urbanistikoaren 7. apartatua, eta proposatzen du urbanizatzeko-kargarik gabeko batez besteko eraikigarritasunaren % 15 gauzatzea a.20.3/24.1 lurzatian, babes publikoko etxebizitzak hartzeko, eta, behar den lagapena agortzen ez bada, aldeko saldoa eskudirutan osatuko da, birpartzelatze-proiektuak zer ezarriko duen zain.

Bosgarrena. Berralojamendu programa.

Horren berri ematen digu UJParen eduki juridiko-urbanistikoaren 9. apartatuak. Bertan, 2. eta 3. partzeletan dauden etxebizitza-eraikinetako legezko okupatzaileak identifikatu ditu, aplikatu beharreko araudiaren betekizunak egiaztatu ondoren beste bizileku bat emateko eskubidearen berri eman du, eta eremuan bertan etxebizitza librean gauzatuko direla adierazi du.

Seigarrena. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.

UJPan sartuta dago, eta sustapenaren eta aurreikuspenen exekuzioaren bideragarritasunari buruzko dokumentu analitikoa da, errentagarritasunari eta etekinen eta kargen arteko oreka egokiari dagokienez.

Bideragarritasuna justifikatuta dago, baina onartzen du erabilitako homogeneizazio-koefizienteak eguneratu egin beharko direla birpartzelatze-proiektuarekin, honela adierazten baitu:



“Nolanahi ere, azpimarratu behar da lurzoruaren azken balorazioa eta aurreikusitako hirigintza-erabilera bakoitzaren balorazio-koefizienteak ezartzea birpartzelazio-proiektuaren berezko eginkizuna dela, eta gai hauei eragiten diela, besteak beste, higiezinen merkatuaren egoera zehatzari eta eraikuntzako kostuei, zeinak kontuan hartu beharko baitira berdinbanaketa-tresna onartzean; beraz, behin-behinekotzat jotzen dira, berrikusi zain, hala badagokio, bai lurzoru urbanizatuaren balioa, bai erabileren haztapen-koefizienteak.”

Zazpigarrena. Prozedura.

Alkatetzari dagokio UJPari hasierako onespina ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Hala ere, baina Tolosako Udalarari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuz. Bestalde, UJPren edukiaren funtsezko elementuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, hogeit egunez, eta jarduketak eragindako ondasun eta eskubideen titular guztiei jakinarazpen pertsonala egingo zaie (Lurzoruaren 2/2006 Legearen 156.3 artikulua).

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea 24. lurre eremuko "24.1 lurramendi pasealekua" azpierenmuko Urbanizatzeko Jarduketa Programari (2021eko apirilaren 15ean aurkeztutako dokumentuari), baldintza hauekin:

- Programa jendeaurrean jarri baino lehen, 10 eguneko epean, urbanizatzeko jarduketa-programaren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan.
- Urbanizazio-fase bakoitza eraikinen egikaritze-faseari lotuta egongo da. Beraz, fase bakoitzeko urbanizazio-obrak amaituta eta udalak jasota egon beharko



dute, fase bakoitzeko eraikinen lehen erabilerako lizentzia emateko.

- Homogeneizazio-koefizienteak horiek eragin dituen tresna onartzeko prozedura hasten den egunean eguneratu beharko dira. Beraz, horiek berrikusi eta justifikatu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan. Gainera, kontuan hartu beharko da Tolosako 24.1.lurramendi pasealekua eremuko hondar-balioaren estimazio-txostena, Marta González Cavia arkitektoak 2018ko azaroan Udalaren enkarguz idatzia.

BIGARRENA.- Urbanizatzeko Jarduketa Programa jendaurrean jartzea 20 egunez, alegazioak egin ahal izateko, eta dagokion iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkarian edo egunkarietan. Halaber, programa udal honen egoitza elektronikoan egongo da interesdunen eskura, helbide honetan: <https://www.tolosa.eus>. GAO on argitaratuko da UJParen funtsezko zehaztapen hauek adierazita:

- a) Jarduketa integratua: 24.1 azpieroemua, "lurramendi pasealekua".
- b) Exekuzio-erregimena: kontzertazioa.
- c) Hirigintza-eraikigarritasuna:
 - c1) Sestra gainean: 14.040 m².
 - c2) Sestra azpian: 10.971,75 m².
- d) Hiritartzearen aurrekontua (BEZ gabe): 1.630.702,09 €.

HIRUGARRENA.- Ohartaraztea, Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko onartzeko, alde z aurretik Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartu beharko dela.

LAUGARRENA.- Ohartaraztea, urbanizazio proiektuak udal ingeniari teknikoaren txostenean zehaztutako kontsiderazio hauei erantzun beharko diela:

- Azpiegituren erregistroen egoera zuzendu beharko da, betiere ibilgailuen trafikorako galtzaden kanpoaldean kokatuta.
- Bidegorri-espaloien trazadura doitu beharko da 0+135 eta 0+170 kilometro-puntuen arteko zatian.



BOSGARRENA.- Ebazpena jakinaraztea espedientearen sustatzaileari eta memoriaren 8. eta 9. epigrafeetan identifikatutako ondasun eta eskubideen titularrei, hogei (20) eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

4. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

- 2021/ 792 DEKRETUA: 2021/12 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2021/792 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2021eko honako faktura-zerrenda hau:

12. zenbaki duena, 373.256,15 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

12. zenbaki duena, 373.256,15 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2021IGBA00009

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Nire aurrean,

Zinegotzi delegatua

idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo dute 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA

ESKUBID1f96d8-e393-460b-8329-5a1ccc3413ea



ERANSKINA

Gaia:	Dirulaguntzak izapidetzeko agiri normalizatuak onartzea
Lan esparrua:	HERRITARRAK
Espedientea:	2021ZZZZ0051

Honakoak dira tramiteen eskuliburuan aldatu beharreko dirulaguntza lerroak:

DL Kodea	Deskribapena	Saila / Azpisaila
DBBE	Diru-laguntza emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen duten toki-elkarteentzako	Berdintasuna
DLPR	Lehiakortasun programarako diru-laguntzak	Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak
DEER	Diru-laguntzak denda eta establezimenduetan euskarazko errotuluak jartzeko	Euskara
DEIK	Euskara ikasteko dirulaguntzak.	
DEPL	Diru-laguntzak enpresetan euskara planak egiteko	
DGAI	Gazte informazio guneak kudeatzeko dirulaguntzak	Gazteria
DGEL	Gazteria Departamentuko diru-laguntzak.	Gazteria
DKEL	Kulturako diru-laguntzak	Kultura, Gazteria eta Festak
DGZD	Udal laguntzak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako	Gizarte Zerbitzuak
DKKE	Dirulaguntzak kirol elkarten urteko jardueretarako eta egiturak sendotzeko	Kirolak
DKEK	Dirulaguntzak eskola kirolaren kudeaketarako egitura espezifikoak sortu eta garatzeko	
DKJB	Dirulaguntzak kirol jarduera bereziak antolatzeko.	
DKIK	Dirulaguntzak igeriketa kanpaina eskolarra antolatzeko	



Honakoak dira onartutako agiri normalizatuak:

- LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZETAN:

DL Kodea	Saila / Azpisaila	Dok. mota	Dok. Kodea
DBBE	Berdintasuna	Eskaera orria	ESK-BE-01
		Gastuen sailkapen zerrenda	GAS-BE
		Balantzea	BAL-BE
		Zuriketarako memoria	ME-BE-01
DLPR	Garapen Ekonomikoa	Eskaera orria	ESK-GE-01
		Gastuen sailkapen zerrenda	GAS-GE
		Balantzea	BAL-GE
DEER	Euskara	Eskaera orria	ESK-EU-01
DEIK		Eskaera orria	ESK-EU-01
DEPL		Eskaera orria	ESK-EU-01
		Proiektua	PRO-EU-01
		Zuriketarako memoria	MEM-EU-01
		Gastuen sailkapen zerrenda	GAS-EU
		Balantzea	BAL-EU
DGAI		Gazteria	Eskaera orria
	Eskaera orria		ESK-GA-02
	Gastuen sailkapen zerrenda		GAS-GA
	Balantzea		BAL-GA
	Jarduera eta aurrekontua		PRO-GA-01
	Jarduera eta aurrekontua		PRO-GA-02
DKEL	Kultura, Gazteria eta Festak	Eskaera orria	ESK-KU-01
		Balantzea	BAL-KU
		Gastuen sailkapen zerrenda	GAS-KU
DGZD	Gizarte Zerbitzuak	Eskaera orria (1-4 lerroak)	ESK-GZ-01
		Eskaera orria (5.lerroa)	ESK-GZ-02
		Jarduera eta aurrekontua	PRO-GZ-01
		Jarduera eta aurrekontua (4+6 lerroak)	PRO-GZ-02
		Zuriketarako memoria	MEM-GZ-01
		Balantzea	BAL-GZ
		Gastuen sailkapen zerrenda	GAS-GZ
DKKE		Kirolak	Balantzea
	Gastuen sailkapen zerrenda		GAS-KI
	Eskaera orria		ESK-KI-01
	Jarduera eta aurrekontua		PRO-KI-01
	Zuriketarako memoria		MEN-KI-01
DKEK	Zuriketarako memoria		MEN-KI-02
DKJB	Zuriketarako memoria		MEN-KI-03
	Jarduera eta aurrekontua		PRO-KI-03
DKIK	Zuriketarako memoria		MEN-KI-04



- DIRULAGUNTZA IZENDUNETAN:

Saila / Azpisaila	Dok. mota	Berria
Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azokak	Eskaera orria	ESK-GE-20
	Proiektu eskaera	PRO-GE-20
	Memoria aurkezpena	MEM-GE-20
Euskara	Eskaera orria	ESK-EU-20
	Proiektu eskaera	PRO-EU-20
	Memoria aurkezpena	MEN-EU-20
Kirolak	Eskaera orria	ESK-KI-20
Ingurumena	Eskaera orria	ESK-IG-20
	Proiektu eskaera	ESK-IG-20
	Memoria aurkezpena	ESK-IG-20
Gizarte Zerbitzuak	Eskaera orria	ESK-GZ-20



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IGBA0009-2021-05-18 Gobernu batzarra akta/2021-05-18 Gobernu